



“dida!” eta buatxabal modelo lehiaketa

GAZTEAko “dida!” irratsaioa eta buatxabal Basque Clothing Co. arropa marka azken horren 2011ko udako katalogoan parte hartuko duten modeloen bila dabilta. Neska bat eta mutil bat behar dituzte eta, horretarako, modelo-lehiaketa (aurrerantzean Lehiaketa) bat jarri dute martxan Gaztea Irratian eta www.eitb.com/gaztea atarian.

1 – Helburua

Lehiaketaren helburua estereotipoetatik at, 2011ko udako katalogo horretarako kaleko jendea bilatzea da.

2 – Parte hartzeko baldintzak

18 urtetik gorako neska eta mutilei zuzendutako Lehiaketa da hau. Parte hartzeko beharrezkoa izango da adinez nagusia izatea.

3 – Metodologia

Lehiaketan parte hartzeko norberaren argazki bat bidali behar da didamodeloa@eitb.com helbide elektronikora, honako datu hauekin batera: izen-abizenak, adina, herria, NAN zenbakia eta kontakturako telefonoa.

Argazkiak honako ezaugarri hauek izan beharko ditu:

- Jeans batzuekin eta kamiseta txuri batekin ateratako argazkia izango da.
- Gerritik gorako argazkiek izango dute preferentzia.
- Bidaliko den e-postak, gehienez, 7 Mbko pisua izango du.
- Lehiaketan parte hartuko duten argazki guztiak www.eitb.com/gaztea atarian erakutsiko dira.
- Argazkitik eratorritako irudi eskubide eta jabetza intelektualaren gaineko eskubideen zilegizko lagapena bermatzen da; hain zuzen ere EITB taldea eta bere hedabide guztien alde argazkiak era baketsuan erabiltzeko berariazko baimenarekin, beti ere berme honen ez betetzetik eratorri litezkeen akzio edo erreklamazioen gaineko erantzukizuna bereganatuz eta, ondorioz, EITB taldea aske utziaz.
- Argazkiok ezin izango dute indarkeria, iraina edo antzeko argudiotan oinarritu eta hori dela eta, EITB taldeak argazkiak lehiaketatik at utzi ahal izango ditu edozein fasetan zehar.

4 – Epeak

- Maiatzaren 9tik 31ra argazkiak jasoko dira.
- Ekainaren 3an lehiaketako irabazleen izena jakinaraziko da “dida!” saioan eta www.eitb.com/gaztea atarian.
- Ekainaren 4an buatxabal etxearen udako katalogorako argazki sesioa egingo da.

5 – Sariak

5.1. – Sari nagusia: Bi irabazle izendatuko dira, neska bat eta mutil bat. Bakoitzak honako sari hauek jasoko ditu:

- buatxabalen 2011ko udako katalogoan parte hartzeko aukera
- Bi lagunentzako asteburua Lesakako Atxaspi landa hotelean.
- Asteburu horretan bertan, bazkaria bi lagunentzako Arantzako Aterpe jatetxean.
- Asteburu horretan bertan, segway-etan ibilaldia bi lagunentzako Berako Auzoa Extreme enpresaren eskutik.
- Afari paregabea argazki saioko egunean

5.2. - Bestalde, lehiaketan parte hartuko duten guztien artean, buatxabalek apropos lehiaketa honetarako diseinatutako 50 kamixeta zozkatuko dira ekainaren 3an. Irabazleen izenak www.eitb.com/gaztea atarian jakinaraziko dira.

6 – Udako kanpainarako argazki saioa

Ekainaren 4an izango da argazki saioa eta Lehiaketako irabazleek bertan parte hartu beharko dute. Lehiaketan parte hartzeak puntu hau onartzea dakar.

Horrez gainera, honako hauek ere izango dira bertan:

- Buatxabaleko ohiko modeloak
- Batix Ezeiza (argazkilaria) eta argazkilaria gonbidatu bat
- Xumar Alzugarai (iluminazioa)
- Kizkitza Retegi (makilaia)
- Duue (ileapaindegia)

7 – Epaimahaia

Lehiaketako irabazleak zein izango diren buatxabaleko eta “dida!” saioko kideek osatutako epaimahai batek erabakiko du.

8 – Datu pertsonalen tratamendua

8.1. - Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak ezarritakoa betetzeko, Ordezkariak eta parte-hartzaileek badakite eta onartu egiten dute Lehiaketa honetan parte hartzeko ematen dituzten datu pertsonalak EITBren fitxategi batean gordeta geratuko direla, oinarri hauetan jasota dagoen moduan kudeatzeko.

8.2. - Oinarrietan zehazten da Lehiaketan parte hartzeko zer datu pertsonal behar diren. Datu horiek eman nahi ez izateak Lehiaketan parte hartu ezin izatea ekarriko du.

8.3. Parte-hartzaile bakoitzak Lehiaketa honetan parte hartzeko eskatzen diren datu guztiak eman beharko ditu, eta adinez nagusia dela aitortu. Parte-hartzaile bakoitzaren ardura izango da Lehiaketan parte hartzeko emandako datuak egiazkoak izatea.

8.4. Parte-hartzaileak Antolatzaileen fitxategian sartu dituen datu pertsonalak zuzentzeko, ezeztatzeko edo horiek erabiltzeari uko egiteko eskubidea erabili ahalko du. Eskaera idatziz egin beharko du, gutun baten bidez. Gutunazalean “dida! eta buatxabal modelo lehiaketa” erreferentzia jarri eta, Nortasun Agiri Nazionalaren edo identifikatzeko balio duen beste agiri ofizialen baten kopia batekin batera, EITBko Gardentasun Zuzendaritzara bidali, Basurtuko Kaputxinoak 2, 48013 Bilboko helbidera.

8.5. Lehiaketa honetan parte hartzeko bere datu pertsonalak ematen dituen parte-hartzaileak datu pertsonalen tratamenduari buruzko lege ohar honen testu osoa irakurri eta ulertu duela adierazten du eta onartu egiten du bai tratamendu hori bai Lehiaketaren oinarrietako eduki osoa.

9 – Oinarriak onartzea

Taldearen Ordezkariak eta parte-hartzaileek Lehiaketaren oinarri guztiak beteko dituztela onartzen dute espresuki. Guztiak www.eitb.com gunean izango dira ikusgai. Bertan jasotako baldintzetako bat ez betetzeak Lehiaketa honetatik kanpo geratzea ekarriko du zuzen-zuzenean.

Lehiaketa honetako parte-hartzaile guztiek, parte hartzeagatik besterik gabe, onartu egiten dituzte horren oinarri eta baldintza guztiak.

10 – Komunikazioak

Galderaren bat egiteko edo oinarri hauetan ezarritako arauak urratu direla salatzeke edo beste edozertarako, parte-hartzaileek gutuna bidali ahal dute EITBren egoitza sozialera, Basurtuko Kaputxinoak 2, 48013 Bilbo helbidera.

11 - Aldaketak

Antolatzaileek eurek erabakiko dute aurretik ikusi ez den eta Oinarrietan jasota ez dagoen ezer gertatuz gero, eta Lehiaketaren baldintzak aldatzeko eskubidea izango dute, erantzukizunik bere gain hartu gabe, ezinbestekoa bada edo bere kontrolpean ez dagoen ezer gertatzen bada.

12 – Lehiaketaren lurralde-eremua eta forua

Lehiaketan zehar eta oinarri hauek interpretatu eta aplikatzetik inolako auzirik izanez gero, irabazleek eta parte-hartzaileek espresuki uko egingo diote horiei dagokien edozein forutara jotzeari eta Bilboko Auzitegi eta Epaitegietan hartzen diren erabakien mende geratuko dira.